



500 ZB. DEKRETUA

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamaikako maiatzaren 26an

Gaia: OIARTZUNGO ELIZALDE L.H.I.KO JANGELA HANDITZEKO OBRAK BURUTZEKO, jendaurrean zabalduz akordiozko prozedura bidez kontratzeko espedientea. Kontratuaren esleipena.

Alkateak 2011ko apirilaren 15ean emandako 310 zb.ko Dekretu bidez, Oiartzungo Elizalde L.H.I.ko jangela handitzeko proiektuan sartutako obren burutzapena kontratzeko espedienteari hasiera eman zion, jendaurrean zabalduz akordiozko prozedura bidez, kontratatzailearen profilean iragarkia argitaratuz eta jardunbidean parte hartzeko gonbidapena lau enpresei bidaliz.

Aipatu kontratazioan proposamenak aurkezteko epean hiru enpresek aurkeztu dute proposamena, esleipen honetarako eskaintzak hiru enpresei onartu zaizkie. Enpresak eta eskaintzak honako hauek dira:

Enpresa	Eskaintzaren zenbatekoa (BEZ barne)	Burutzapen epea
AMAIUR ETXEGINTZA SL	521.915,10 €	5,5 hilabete
ERRETI ERAIKUNTZAK SL	513.622,73 €	4 hilabete
CONSTRUCCIONES ALZOLA SL	463.860,95 €	5 hilabete

Kontratazio Mahaiak 2011ko maiatzaren 9an egin zuen esleipen-proposamena, CONSTRUCCIONES ALZOLA SL enpresaren alde.

2011ko maiatzaren 11an Alkatearen 390 zb.ko Dekretu bidez Oiartzungo Elizalde L.H.I.ko jangela handitzeko proiektuan sartutako obren burutzapena kontratzeko prozeduran proposamen ekonomiko onuragarriena CONSTRUCCIONES ALZOLA SL enpresarena zela erabaki zen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.2 artikularekin adostasunean hamar egun balioduneko epea eman zitzaion enpresari behin-betiko 19.655,12 euroko bermea eratzeko eta dokumentazioa aurkezteko, eta hala egin du CONSTRUCCIONES ALZOLA SL enpresak 2011ko maiatzaren 23an.

CONSTRUCCIONES ALZOLA SL enpresari esleitzea proposatzen da, zeinaren eskaintza 463.860,95 eurokoa den (BEZ barne), osotasunean interes publikoetarako abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa dela iritzita, betiere pleguetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera Kontratazio Mahaiak egindako eta espedientearen jasota dauden balorazioetan oinarrituta. Horrenbestez, honako puntuazio hauek eman zaizkie aurkeztu diren eskaintzaileei, beherakor ordenatuta:

	Enpresa	Irizpideak		GUZTIRA
		Prezioa	Epea	
1.	CONSTRUCCIONES ALZOLA SL	31,40	9,66	41,05
2.	ERRETI ERAIKUNTZAK SL	20,43	8,28	28,71
3.	AMAIUR ETXEGINTZA SL	18,61	8,62	27,23

Honako hauek dira esleipendunaren proposamenaren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak, eskaintzak onartu zaizkien aurkeztutako gainerako lizitatzailleen aurrean haren eskaintza lehentasunez hautatua izateko: prezioz merkeena da eta batezbesteko egikaritze epea onena da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, zera **ERABAKITZEN DUT**:

1. OIARTZUNGO ELIZALDE L.H.I.KO JANGELA HANDITZEKO OBRAK BURUTZEKO kontratua CONSTRUCCIONES ALZOLA SL enpresari esleitzea, 463.860,95 euroko prezioarekin (BEZ barne) eta 5 hilabeteko gauzatze-epearekin.

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0602 622 422 11 01 (A 4807-2010 eta A 943-2011) diru-atalaren kargura egingo da.

Construcciones Alzola SL enpresak ez du banakako preziorik aurkeztu, beraz, administrazio-baldintza zehatzen agiriaren 3. klausulan ezarritakoarekin bat, Oiartzungo Udalarenak oinarritzat hartzen dituela ulertzen da, baina enpresaren prezio proposamenean jasotako beherako portzentaia kenduta.

2. Kontratuaren formalizazioa esleipena jakinarazten denetik hurrengo hamabost egun baliodunetan egingo da.
3. Erabaki hau jakinaraztea enpresa esleipendunari eta gainerako enpresa eskaintzaileei.
4. Esleipen hau udalaren kontratatzaileen profilean argitaratzea.



5. Jarritako behin-behineko bermeak itzultzea aurkeztutako hiru enpresei:
AMAIUR ETXEGINTZA SL, ERRETI ERAIKUNTZAK SL eta
CONSTRUCCIONES ALZOLA SL-ri.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk
idazkari naizenez, ziurtatzen.





OIARTZUNGO
UDALA